



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018. 01. 29

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bederatzian, goizeko zortzietan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeke.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Beloso	
Jokin Azkue Arrastoa	1. Aurreko akta onartzea.
Iñigo Alonso Sarasibar	2. Enplegune 2016-2017ko diru-laguntzen kitapena.
Idazkaria:	3. Tolosako zezen-plazako egokitzapen proiektuaren 2. faseko obren 1. ziurtagiria (116-1/17faktura).
Begoña Garmendia Vázquez	4. TAO zerbitzua kudeatzen duen enpresarekin Udalak sinatutako kontratuaren prezioa berraztertzea.
Kontuhartzailea:	5. 2018ko Inauteriak. Egitarauaren eta aurrekontuaren onespena.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	6. 75/2017 eta 76/2017 faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko urtarrilaren 22an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2. Enplegune 2016-2017ko diru-laguntzen kitapena.

Tokiko Gobernu Batzarrak mahai gainean utzi du Enplegu Departamentuak aurkezturiko proposamena, 2016-2017ko diru-laguntzen kitapenari dagokiona. Izan ere:

- Proposamenak ez du jasotzen hasierako deialdiaren araubidearen aldaketa, zeinaren bidez onuradunek jaso ahal izango baitute diru-laguntzaren 2. ordainketa



(kitapena) Udalaren eskutik era aurreratuan, beti ere Lanbide Erakundeak kitapen horren aldeko ebazpena eman eta gero, kitapenaren ordainketa materiala Lanbidek ez gauzatu arren.

- Bestaldetik, diru-laguntzen kitapenen zerrendan akats aritmetikoak eta kontzeptualak bazeuden, eta horiek zuzendu egin behar ziren.

Hala ere, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondoko hau erabaki du puntu honetan:

Lehena.- Aldatzea Eskualdeko Enplegu Plangintza 2016-2017 ekitaldietako diru-laguntzak arautzen dituen deialdia eta ondoren izenpeturiko hitzarmenak, jarraian aipatzen den klausularen arabera: **Tolosako Udalak enpleguko diru-laguntzen 2. ordainketa (kitapena) gauzatu ahal izango du Lanbideko diru-laguntza eskuratu aurretik, beti ere Lanbide Erakundeak jakinarazten badio Udal honi aipatu ordainketa onartu duela, dagokion ebazpenaren bitartez.**

Bigarrena.- 2016-2017ko laguntzen kitapenaren ordainketari dagokionez, behin betiko kopuruak ezarriko dituzte elkarlanean Enplegu Departamentuak eta Kontuhartzailtzak.

Hirugarrena.- 2017-2018 ekitaldietako laguntzei dagokienez, irizpide bera jarraituko da kitapenaren ordainketarako, alegia, Tolosako Udalak ordaindu ahal izango du onarturiko laguntzen 2. zatia, behin Lanbide Erakundeak dagokion erabakia jakinarazi eta gero, eta haien diru-sartze materiala gauzatu aurretik.

3. Tolosako zezen-plazako egokitzapen proiektuaren 2. faseko obren 1. ziurtagiria onartzea (116-1/17faktura).

Tolosako Udalak Murgil Eraikuntzak SL enpresari esleitu zion “Zezen-plazako egokitzapen proiektuaren bigarren fasea” egiteko obren kontratua, 178.169,62 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte obren inguruan ez da ziurtagiririk aurkeztu eta oraingoa lehenengoa da.

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria.....116-1/17.....78.394,80 €

GUZTIRA.....78.394,80 €



TOLOSAKO
UDALA

Orain aurkeztutako likidazioari onarpena eman diote Obra Zuzendaritzak eta Udalak kontratatua duen aholkulariak.

Ziurtagiri hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Zezen-plazako egokitzapen proiektuaren bigarren faseko obren 1. ziurtagiria onartzea. Zenbatekoa: 78.394,80 euro.

BIGARRENA.- Faktura ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, "Murgil Eraikuntzak, S.L." enpresari eta Kontuhartzaitzari.

4. TAO zerbitzua kudeatzen duen enpresarekin Udalak sinatutako kontratuaren prezioa berraztertzea.

Gaia mahai gainean geratu da aztertu behar delako kontratuaren egoera.

5. 2018ko Inauteriak. Egitarauaren eta aurrekontuaren onespena.

2018ko otsailaren 3an hasi eta 18an bukatuz, Tolosan ospatuko diren Inauterien egitarau ofiziala eta honek Udalaren aurrekontuan izango duen eragina landu du Kultura, Festak eta Gazteriako Departamentuak azken hilabeteotan.

Herriko eragile ugariarekin eta udal barruko zerbitzuekin guztia koordinatu eta adostu ondoren, proposamena aurkeztu dute Gobernu Batzarrak onar dezan.

Egitarauak inauterietan urterik urte errotzen joan diren ekimen guztien bilduma ekartzen du, eta Udalak bere jarduerarako ezarriak dauzkan irizpide transbertsalak betetzen ditu, berdintasunaren aldekoa eta jasangarria izatea, besteak beste.

Honekin batera doaz egitarauaren eta aurrekontuaren proposamen xehatuak.

Aurrekontuari dagokionez, 236.666 euroko gastua proposatzen da.

Kopuru hau kontzeptu hauen baturatik ateratzen da:



TOLOSAKO
UDALA

IÑAUTERIAK 2018	
KARROZA ETA KONPARTSENTZAKO EKARPENA	54.847,87 €
TXARANGEN KONTRATAZIOA	67.347,00 €
EMANALDI ETA IKUSKIZUNEN KONTRATAZIOA	36.061,60 €
ZEZEN-IKUSKIZUNEN KONTRATAZIOA	34.294,47 €
DANBORRADAK	6.853,00 €
ARGITALPENAK: PROGRAMA ETA BESTELAKO KOMUNIKAZIO LANAK	13.352,10 €
GASTU OROKORRAK: SONORIZAZIOAK, MUNTIAK, KOMUN PUBLIKOEN ALOKAIRUA, LAGUNTZAILEAK....	23.909,62 €
GUZTIRA	236.666,66 €

Hori horrela, Kultura, Festak eta Gazteriako Departamentuak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Inauterietako behin betiko egitaraua eta gauzatu ahal izateko beharrezkoa den **236.666,66** euroko aurrekontua.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Festa arduradunari.

6. 75/2017 eta 76/2017 faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **75/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **14,99€**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **75/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....



TOLOSAKO
UDALA

Kontuhartzaitzak **76 /2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **376.790,71 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **76/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA